

Ikus-entzunezko lanen XIV. lehiaketa

Eman minutu 1 - OSASUNA

OINARRIAK

UN Etxea- UNESCO Sustatzeko Euskal Herriko Elkartea nazioarteko borondatea duen euskal GKE bat da, eta joan den 32 urteotan Bakearen Kulturaren eta Giza Garapen Iraunkorraren alde ari da lanean, eskubideak eta erantzukizunak, biak, aintzat hartuko dituen kulturaren alde; pertsonak, gizarte-erakundeak, hizkuntza- eta kultura- komunitateak eta herriak aintzat harturik, hiritargo globa demokratikoa eraikitzeko lan egingo duen mundu baten alde. Horixe da, hain zuzen, UNESCOk, eratu zenean, bere gain hartutako xedea: bake bidezkoa eta duina eraikitzea, pertsona eta haren duintasuna eta balio gorenak ardatz harturik.

“**Eman minutu 1” Lehiaketak**, edizio bakoitzean, giza eskubideen inguruan hobekien defendatzen, bultzatzen, aldarrikatzen, zabaltzen eta/edo kontzientziatzen dituzten minutu bateko ikus-entzunezko piezak saritzen ditu.

Guztiak berdinak garena eta eskubide eta betebeharrak berberak ditugula aldarrikatzen du “Eman Minutu 1” lehiaketak, eta denok defendatu behar ditugula pertsona guztien eskubideak. Inork ere ezin ditu eskubide horiek saihestu eta, hortaz, eskubideok urratzen diren tokian horiek babesteko betebeharra du.

Hauek dira UN Etxearen
“Eman minutu 1 - OSASUNA”
Ikus-entzunezko lanen XIV. lehiaketaren
OINARRIAK

1. Hauek izango dira SARIAK, lau kategorietan:

‘EMAN MINUTU 1’ SARIA. *Kategoria nagusia eta sari gorena.*

SARIA: Dokumentalaren errealizazioa finantzatuko da, guztira 5.000(*) euroko zenbatekoan + garaikurra.

Kategoria hau 18 urtetik gorako parte-hartzaileentzat da.

Lan irabazlea epaimahai espezializatu baten irizpideen arabera aukeratuko da, lehiaketaren oinarriak betetzen baldin baditu.

Kategoria honetako irabazleek saria onartzeko legezko agiri bat sinatuko dute. Agiri horretan, aurretik adierazitako kopuruarekin dokumental bat egiteko konpromisoa jasoko da.

Egindako dokumentala saria lortu eta hurrengo urteko azaroan aurkeztuko da UN Etxeak Bilboko *Fair Saturday* jaialdiaren barruan antolatutako ekitaldi publiko batean.

‘EUSKARAZKO MINUTURIK ONENA’ SARIA

SARIA: 1.250 € (*) + garaikurra

Euskarazko minuturik onena.

‘EKIN ETA EGIN’ SARIA

SARIA: 600 € (*) + garaikurra

Sari hau 18 urtetik beherakoei, ikastetxeei, gazteen kultur elkarteei eta abarri zuzenduta dago. Gazteek bakarka edo taldean aurkeztu ahal izango dute beren lana.

'UN ETXEA' SARIA

SARIA: 600 € (*) + garaikurra

Kategoria honetan bideoaren mezua [UNESCOren misioarekin](#) bat datorren baloratuko da.

() Sorkuntza artistikoko sari horiek materia fiskaleko indarreko erregulazioan jarritakoari lotuta egongo dira.*

2. 2023an, XIV. edizioan, lehiaketak "Eman minutu 1 OSASUNA" izenburua du. Edizio honetan minutu bateko ikus-entzunezko pieza onenak sarituko dira, osasunerako eta ongizaterako giza eskubidea defendatzen, sustatzen, aldarrikatzen, zabalitzen eta/edo kontzientziazten dutenak.

Osasunarekin eta ongizatearekin lotutako hainbat dimentsio giza eskubideen ikuspegitik jorratzea egokia eta beharrezkoa da, are gehiago pandemiaren osteko egoera honetan; izan ere, gaixotasun asko bigarren mailara igaro dira, bai interes publikoari dagokionez, bai inbertsioari dagokionez, eta urratutako emakumeek eta beste kolektibo batzuek osasunerako eta ongizaterako eskubidea ukatzen jarraitzen dute.

Orain, inoiz baino gehiago, ahalegin gehiago egin behar dira gaixotasun ugari erabat desagerrarazteko eta osasun-arazo askori aurre egiteko, bai etengabeak bai sortzen ari direnak, osasuna erabateko ongizate fisiko, mental, sozial eta ingurumenekotzat hartuta, Nazio Batuen Garapen Agendako 3. Garapen Jasangarriko Helburuak ere adierazten duen bezala.

(<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/health/>)

Epaimahaiak bereziki baloratuko ditu:

- Pertsona guztien osasunaren eta ongizatearen garrantziari buruzko hausnarketa egiten duten bideoak.
- Giza eskubideak sustatzen, babesten eta konprometitzen dituzten bideoak.
- Inor atzean utzi gabe, inor kanpoan utzi gabe, etorkizun iraunkorra eraikitzen lagunduko duten bideoak.
- Desberdintasuna eta kultura-, gizarte-, identitate- eta genero-aniztasuna onartzea eta gizarteratzea.
- Pertsonak beren eskubideak banaka edo taldean eskatzeko dituzten gaitasunak eta estrategiak ikusaraztea.

- Gizartea mundu bidezkoago, inklusiboago, bidezkoago eta iraunkorrago baten aldeko borrokan inplikatzeari.
- Genero-berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea defendatzen duten bideoak.
- Tonu paternalistak, biktimizatzaileak edo sentsazionalistak saihestu beharko dira.

3. Lanek **minutu bateko iraupena** izango dute, kreditu-tituluak kontuan hartu gabe (ez da beharrezkoa kreditu-titulu horiek sartzea). Edozein hizkuntzatan aurkeztu ahal izango dira eta honako formatu hauetakoren batean: mov, avi, flv,, mkv, mpeg, mp4.

4. Pertsona bakoitzak nahi adina ikus-entzunezko pieza aurkeztu ahal izango ditu. Ikus-entzunezko pieza bakarka zein taldean egin daiteke.

5. Lanak smartphonearekin, webcamarekin edo argazki- edo bideo-kamerarekin ere egin ahal izango dira, baina aurrez adierazitako bost formatuetako batean (mov, avi, flv, mkv, mpeg eta mp4) eta ahalik eta bereizmen handienera aurkeztu beharko dira. Lanak egiteko edozein teknika edo postproduzio mota erabil dezakete egileek.

6. Lehiaketaren web-orriaren bidez egin behar da izen-ematea. www.dame1minutode.org

18 urtetik beherako parte hartzaileak egonez gero:

1 eranskina edo 2 eranskina beteta, dame1minutode@unetxea.org helbidean, aurkeztu beharko dute, oinarrietan erantsita datozenak:

- 1 Eranskina. Baimen kolektiboa: hala nola, ikasgela, ikastaro, ikastetxea, elkarte, gaztelekua, topagunea, etab. Aurkezten diren lanetarako, ikastetxeko zuzendaritzaren ardura izango da betetzea, kontuan izanik adingabeen familien eta/edo legezko ordezkarien alde aurreko baimena izan beharko duela..
- 2 Eranskina. Banakako baimena: maila partikularrean aurkezten diren lanetarako, parte hartzen duen adingabearen edo adingabeen amaren, aitaren edo tutorearen baimena beharko da..

(Eranskinak Word formatuan deskarga daitezke [esteka honetan](#))

7. Bost modu daude lanak guri helarazteko:

- GoogleDrive, OneDrive, iCloudDrive edo Dropbox-en bidez hodeian partekatuz.
- Bidalketa-zerbitzuen bidez, hala nola WeTransfer, Smash, pCloud Transfer, etab
- e-postaz: dame1minutode@unetxea.org (10MB gehienez).

- Bideoak bidaltzeko ez da onartuko YouTube, Vimeo edo ikus-entzunezko beste edozein plataforma edo sare sozial erabiltzea (Facebook, Twitter, Instagram, TikTok, etab.)

8. 2024ko urtarrilaren 31an, 23:59an bukatuko da izena emateko eta lanak bidaltzeko epea (egun horretatik aurrera bidalitako lanak ez dira lehiaketan sartuko).

9. Lanak originalak izango dira. Antolakuntzak ez du bere gain hartuko aurkeztutako lanek egile-eskubideen arloan egin ditzaketen arau-hausteak.

10. Lehiaketaren antolatzaileek eskubidea izango dute zenbait lan kanpoan uzteko. Hain zuzen, lehiaketaren gaiarekin loturarik ez duten edukiak dituztenak edo kalitatezko baldintza tekniko gutxienekoak betetzen ez dituztenak.

11. Lanen egileek lehiaketari utziko dizkiote obrak erreproduzitzeko, komunikatzeko eta jendartean banatzeko eskubideak, baina egilea nor den adierazita erabiliko dira beti ere eskubide horiek.

12. UN Etxeak lehiaketaren gai nagusian eta ikus-entzunezkoetan adituak diren pertsonak osatutako epaimahai bat izendatuko du edizio bakoitzean. Epaimahai horrek jendaurrean jakinaraziko du epaimahaia epaia eman aurretik.

13. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

14. Epaimahaiak sari bat edo guztiak eman gabe utzi ahal izango ditu, baita ex aequo sariak eman ere (kasu honetan, sariaren zenbatekoa saridunen artean banatuko da).

15. Lehiakideek, lehiaketa honetan parte hartzean, onartu egiten dituzte hemen adierazitako oinarriak.

16. UN Etxeak lan sarituak zein diren jakinaraziko die partaideei, eta lehiaketaren jarraipena egingo du web-orriaren bidez.

17. Partaide bakoitzak bere gain hartuko du Sari banaketara joateko gastuak.

18. Lehiaketari buruzko beste edozein informazioren berri jakiteko, UNESCO Etxera jo dezakezue, www.dame1minutode.org bisita dezakezue edo e-mail bat bidal dezakezue helbide honetara: dame1minutode@unetxea.org. Lehiaketa amaitu arte, *Facebook*, *Twitter* eta *Instagram* gizarte-sareetan, **@dame1minutode** kontuan, eguneratuko da informazio guztia.

Antolatzen du



Babesten dute



DATUEN BABESA.

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra betetze aldera, jakinarazten da datu pertsonalak datu-base batean jasoko direla eta datu-base hori soilik lehiaketa kudeatzea erabiliko dela. Datuak horretarako bestetarako ez dira erabiliko.

Fitxategian jasotako zuri buruzko datuak eskuratu, deuseztatu, zuzendu eta haien aurka jotzeko eskubidea duzu. Hiru bide dituzu horretarako: eskabidea posta elektronikoz bidaltzea info@unetxea.org helbidera, 94 427 64 32 telefono-zenbakira deitzea edo posta arrunta erabiltzea: UN Etxea. Uribitarte pasealekua, 12, 2. bulegoa. 48001 Bilbo.



1. ERANSKINA

IKASTETXEAREN, GAZTELEKUAREN, ELKARTEAREN etab. BAIMENA

“EMAN MINUTU 1” LEHIAKETAN ADINGABEKOEK PARTE HARTU AHAL IZATEKO

LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DUEN LANAREN IZENBURUA (k):

(izena).....andk / jnk, adinez nagusi,
..... NAN zenbakiarekin,telefono-zenbakia,
eta.....e-maila dituenak,
(izena).....ikastetxearen,
gaztelekuaren edo elkartearen arduraduna den aldetik, eta adingabekoen familien edota lege-
ordezkarien baimena aurretik jasota:

ADIERAZTEN DU:

Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko.

Berariaz BAIMENA EMATEN DU adingabeek lehiaketan parte har dezaten eta, sarituak izanez gero, egin duten bideoa (k) Interneten jendaurrean erakutsi ahal izan daitezen.

Bideo irabazleez gain, lan finalistak jendaurrean proiektatuko dira 2024ko martxoan sari-banaketa ekitaldian.

Hori guztia sinatuta, adostasuna adierazteko (sinadura edo zigilua)

.....n,(e)koaren(e)(a)n

2. ERANSKINA

AMAREN EDOTA AITAREN, TUTOREAREN* BAIMENA

ADINGABEKOEK “EMAN MINUTU 1” LEHIAKETAN PARTE HAR DEZATEN

LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DUEN LANAREN IZENBURUA (k):

(izena) andk / jnk, adinez nagusi,
..... NAN zenbakiarekin, telefono-zenbakia,
eta e-maila dituenak,

eta

(izena) andk / jnk, adinez nagusi,
..... NAN zenbakiarekin, telefono-zenbakia,
eta e-maila dituenak,

ADIERAZTEN DUGU:

Ohorerako, Norbanakoaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko, BAIMENA EMATEN DIOGU, BERARIAZ, gure.....alabari/semeari, “Eman Minutu 1” Lehiaketan parte hartzeko, eta lehiaketaren oinarriak onartzen ditugu.

Bideo irabazleez gain, lan finalistak jendaurrean proiektatuko dira 2024ko martxoan sari-banaketa ekitaldian.

Ados gaudela adierazteko hori guztia sinatzen dugu

.....n,(e)koaren(e)(a)n

*Gaztearen guraso-ahala duten pertsonak baimena sinatu behar dute (bi badira, biek; zaintza eta babespea guraso bakarrek badauzka, nahikoa da beraren baimena). Izatezko edo zuzenbidezko banantzeen eta dibortzioen kasuetan, zaintza eta babespea dagozkion pertsonak sinatu beharko du.